

GIG 63

DEBA IBAIAREN PALEOTERRAZA

BALIO INTRINTSEKOA: 3

BALIAGARRITASUN-MAILA: 2,75

KALTEBERATASUN-MAILA: 4

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Debako hilerri berriaren obrekin, Deba ibaiaren terraza bat bistaratu zuten 2018an, hego-mendebaldeko lur-erazketetan. Ondo definiturik dago, ederki biribildutako errekarri dezimetroekin le-
rrokaturata. Ertzak metatzeko mailak hamarka metroko albo-hedadura eta 0,5 metroko lodiera ditu.

Tankera horretako terraza zintzilikatua ez dira ohikoak Kantauri isurialdean, normalean higatuta edo lurzoruz eta landaretzaz estalita egoten baitira. Haren azterketa sedimentologikoak eta datazioak da-
tu interesgarriak eman ditzakete Deba ibaiaren ahokatzea ulertzeko, bai eta bailararen goiko aldean ageri diren terrazetan eginiko azterketak osatzeko ere.



Deba ibaiaren paleoterrazaren ikuspegi rorokorra.

NOLA BERTARATU

Debatik N-634 errepidea hartu behar da, Mutrikurako noranzkoan. Biribilgunea baino lehen, herria-
ren irteeran, ezkerrean dagoen bidegurutzea hartu behar da (hilerri gisa dago seinaleztatuta).

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

In situ.

Gaur egungo terrazaren ikuspegi orokorra behatokitik.